# KOSTUEN EGITURAK

- **Kostu finkoa:**

-Gure langileen soldatak ez dira aldakorrak izango, hau da, haien soldata hilabetero berdina izango da.
-Produktua egiteko erosten diren makinen prezioa ez da aldatuko.
-Ez dugu dirua gastatuko lokalaren alokairuan, taldekide baten aitonaren lokala erabiliko baitugu. Ez ditugu ordenagailuak erosiko, bakoitzak etxetik bere ordenagailua ekarriko du, hasierako gastuak murrizteko.

- **Kostu aldakorra:**

-Makinak erabilitako energia, zenbat eta gehiago erabili makina, erabilitako energia handiagoa izango da, beraz, gero eta garestiago.
-Lokalaren argia, zenbat eta ordu gehiago inbertitu lanean orduan eta argi gehiago erabiliko dugu, eta zenbat eta argi gehiago erabili, prezioa igoko da.
-Zenbat eta produktu gehiago ekoiztu, horiek fabrikatzeko materialen beharra igoko da, beraz, material gehiago erosi ahala, gehiago ordaindu beharko dugu.
-Gps-a, zenbat eta eskumuturra edo erloju gehiago egin Gps gehiago jarri behar izango ditugu.





Eskala ekonomikoak ez dira egongo ,zeren eta, ohikoena izango da pertsona bakoitzak bat erostea edota gehienez bi edo hiru familiakoentzako etab…

Zabalkunde ekonomikoak: bi diseinu mota egingo ditugu, eskumuturra eta erlojua. Horretaz aparte, apaingarri moduan eta larrialdi egoeretan laguntza eskatzeko erabili daiteke, beraz, bi erabilera izango lituzke.

Kostuen egitura motak:

- Kostuen minimizazioa bakarrik erabiliko dugu beheraldiak daudenean, nahiz eta ezin dugu prezioa asko jaitsi zeren eta bestela guk ez genuke beharrezko dirua lortuko negozioa aurrera ateratzeko eta soldatak ordaintzeko.
- Nahiz eta ez izan oso merkea errentagarria da zeren eta eskaintzen digun zerbitzua gure segurtasunerako hobea delako.